



LANBIDE HEZIKETA

2019-2020 IKASTURTEAREN ITXIERA, COVID-19AK SORTU DUEN

EGOERA DELA-ETA.

COVID-19ak eragin duen pandemia dela-eta erabaki berri asko hartu behar izan ditugu. Aurretiaz, etorkizunak zer ekar zezakeen begira jarrita ere, inork ere ez zuen ikusten horrelakorik erabaki beharra izango zenik, baina... Bizitzaren arlo guztietan izan du eragina, eta, jakina, baita gure hezkuntza-sisteman ere. Aurrez aurreko eskola guztiak bertan behera utzi behar izan ditugu; lehenik, martxoaren 10ean, Arabako lurralde historikoan; eta, gero, martxoaren 13an, Euskal Autonomia Erkidego guztian.

Horregatik, 2019-2020 ikasturte hau ixteko ezarrita zeuden irizpide guztiak beste era batera planteatu behar izan dira, eta, horregatik, jarraibide berriak behar dira, herritarren konfinamendu orokorra askatzen hasten ote denerako, eta ikastetxeetan aurrez aurreko eskoletara itzultzen ote garenerako. Ez hori bakarrik; gainera, ikasteko modu berriak ezarri beharko ditugu gure ikasleentzat, bermatuta gera dadin eskuratuko dituztela heziketa-etapa bakoitzean aurreikusita dauden konpetentzia kritikoak.

Lanbide Heziketan, irakasle eta ikastetxeen lan eskergari esker, on line prestakuntza landu dugu, eta Lanbide-Heziketako ikasle guztiek ikasten jarraitu dute, ahalik ondoen. Ikasten jarraitu izan horretan, Lantokiko Prestakuntzaren modulua da kaltetuena (LP); izan ere, aurrez aurreko eskola-jarduera oro ikasturteko hirugarren hiruhilekoan eteten ari da; hau da, heziketa-ziklo bakoitzeko 2. mailako gure ikasleek modulu hori egiten duten garaian, hain zuzen ere. Gainera, enpresetako jarduera oro etenda geratu denez, eta beste herrialde batzuetara bidaiatzea debekatu egin denez,

are eta zailagoa gertatu da ikasten jarraitzea, ikasketa horiek enpresetan egiten baitira, dela gure erkidegoan, dela beste erkidego batzuetan, edo dela, Erasmus+



programaren barruan, gure inguruko beste herrialde batzuetako enpresetan. Goi-mailako heziketa-zikloetan, gainera, ezin proiektu-modulua ahaztu, Lantokiko Prestakuntzako (LP) moduluen aldi berean egiten baita.

Horregatik guztiagatik, behar-beharrezkoa da norabide edo jarraibide batzuk zehaztea, hartara hobeto jakiteko nola erantzun 2019/2020 ikasturtearen itxieraren inguruko gai eta zalantzei, eta hobeto jakiteko orobat nola egin eta ebaluatu LP eta proiektu-modulua. Aurrez aurreko eskolen hasiera, azterketak, ebaluazioak eta ikasturte-amaiera jorratu ditugu jarraibideetan, etor daitezkeen agertoki guztien arabera. LP+Proiektua modulari buruzko jarraibide batzuk ere gehitu ditugu.

2019-2020 IKASTURTEAREN ITXIERA

Ikasle hauek: gaur egun heziketa-ziklo bateko 1. ikasturtea egiten ari diren ikasleak (OLH, EMHZ eta GMHZ):

1. Eskola normaletara (aurrez aurrekoetara) itzultzeko modu bat baino gehiago planifikatu dugu, era bat baino gehiagotara gerta baitaiteke. Osasun-agintariek baimena eman bezain azkar azalduko dizuegu nola egin itzulera hori.
2. Aurrez aurreko eskolak etenda egon diren bitartean, irakasleek ikasleei azaldu izango diete zer ikasi, zer jarduera egin eta ikasitakoa nola ebaluatuko dugun. Aurrez aurreko jarduera akademikoa etenda egon den bitarte guztian, planifikaturik zeuden edukietako batzuk on-line irakatsi izango dizkie, ikasleei bidalitako atazen jarraipena egin, eta tutoretza-lana egiteko eta, beharrezkoa izanez gero, atazak ebaluatzeko estrategiak martxan jarri izango dituzte. Ikasleak aurrez aurreko eskoletara itzultzen direnean, moduluak indartzea izango du lehentasuna, praktikak eginez gogotik.
3. Zer datorren ikusi ondoren, eta osasun-agintariek aurrez aurreko eskoletara itzultzeko baimena ematen digutenean, orduan izango dugu aukera



doikuntzak egiteko 2019-2020 ikasturte honetarako hasiera batean jarritako egutegietan, baina, betiere, ikasturte amaierako gako-jarduerak errespetatuz, eta jarritako amaiera-datetan, ikasturte-itxiera ez dadin ekainaren 26a baino beranduago etorri. Honatx amaiera-data horiek:

3.1. OLHrako:

3.1.1. Ekainaren 24an: 1. ikasturteko 2. ebaluazio finala.

3.1.2. Ekainaren 25ean: Tutorearekin batzarra egin, eta ikasleari kalifikazioak eman.

3.1.3. Ekainaren 26an: Erreklamazio-eguna.

3.2. EMHZ eta GMHZ:

3.2.1. Ekainaren 24an: 1. ikasturteko 2. ebaluazio finala LOE zikloetarako/1. ikasturteko ezohiko finala LOGSE zikloetarako.

3.2.2. Ekainaren 25ean: Tutorearekin batzarra egin, eta ikasleari kalifikazioak eman.

3.2.3. Ekainaren 26an: Erreklamazio-eguna.

4. Ikasle guztiek egin ahal izango dute aurrera 2. ikasturtera, hiru gauza hauetan oinarriturik:

1.1.1. Lehen bi hiruhilekoetan aurrez aurreko prestakuntzan lortutako emaitzak.

1.1.2. Hirugarren hiruhilekoan on-line prestakuntzan garatu den jarduera.

1.1.3. Ikastetxe bakoitzak aurretiaz planifikaturiko errekupeazioetan lortutako emaitzak.

Hori guztia aktetan islatuko da: LOEren zikloetarako, 1. ikasturteko 1. azken ebaluazioaren eta 2. azken ebaluazioaren aktetan; edo, LOGSE zikloetarako, 1. ikasturteko ohiko finalekoetan eta 1. ikasturteko ezohiko finalekoetan. Horrela, beranduenera ere ekainaren 26an prozesu guztia amaiturik egongo da.



Ikasle hauek: gaur egun erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloren bateko 2. ikasturtean matrikulaturik daude, eta, hortaz, prestakuntza-modulua lantokiren batean egin behar dute (LP), dela gure enpresetan edo dela ERASMUS+ programaren eta proiektu-moduluaren bitartez:

1. Salbuespen gisa, "LP+PROIEKTUA" izeneko modulu berri bat ezarri da, bai erdi-mailako heziketa-zikloetarako, bai goi-mailako zikloetarako, eta 245 orduko iraupena izango du. Iraupen hori kalkulatzeko, Oinarrizko Curriculum Diseinuak hartu dira oinarri (titulu bakoitzak bere errege-dekretuan ditu zehazturik), eta, beraz -han hala jartzen baitu-, LP moduluak gutxienez 220 ordu izan behar ditu, eta proiektu-moduluak, berriz, 25.
2. Larrialdi sanitarioa eta alarma-egoera aktibatuta aurretik egindako orduak ere izango dira aintzakotzat, bai enpresan eginitako LP orduak, bai proiektukoak.
3. Ikasle batzuek ez dute modulu berri hori egin beharrik izango. Honako hauek: LP modulua 2019-2020 ikasturteko lehen seihilekoan egin duten ikasleek (ezohiko aldia LOEren zikloetarako eta ohiko aldia LOGSEren 1400 orduko zikloetarako).
4. Helburua da "LP+Proiektua" modulu berriko jarduerari maiatzaren 4an ekitea, astelehena; eta on-line ekitea. Aurrez aurreko eskolak hasteko baimena iristen denean, ikasleak prestakuntza hori enpresan egiten hasi ahal izango dira, edo on-line jarraitu ahal izango dute.
5. Zer datorren ikusi ondoren, eta osasun-agintariek aurrez aurreko eskoletara itzultzeko baimena ematen digutenean, orduan izango dugu aukera doikuntzak egiteko 2019-2020 ikasturte honetarako hasiera batean jarritako egutegietan, baina, betiere, ikasturte amaierako gako-jarduerak errespetatuz, eta jarritako amaiera-datetan, ikasturte-itxiera ez dadin ekainaren 26a baino beranduago etorri. Honatx amaiera-data horiek:
 - 5.1. Ekainaren 19, 22 eta 23an: Amaierako azterketak (finalak).
 - 5.2. Ekainaren 24an: 2. ikasturteko 2. ebaluazio finala LOE zikloetarako/Zikloko ezohiko finala LOGSE zikloetarako.



5.3. Ekainaren 25ean: Tutorearekin batzarra egin, eta ikasleari kalifikazioak eman.

5.4. Ekainaren 26an: Erreklamazio-eguna.

Ikasle hauek: gaur egun, Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloren bateko 2. ikasturtean daude matrikulaturik, eta prestakuntza-modulua lantokian egin behar dute (LP):

1. Salbuespen gisa, "LP+PROIEKTUA" izeneko modulu berri bat ezarri da; 155 orduko iraupena izango du. Iraupen hori kalkulatzeko, Oinarrizko Curriculum Diseinuak hartu dira oinarri (titulu bakoitzak bere errege-dekretuan ditu zehazturik), eta, beraz —han hala jartzen baitu—, LP moduluak gutxienez 130 ordu izan behar ditu, eta proiektu-moduluak, berriz, 25.
2. Larrialdi sanitarioa eta alarma-egoera aktibatu aurretik enpresan egindako LP orduak aintzakotzat hartuko dira.
3. Ikasle batzuek ez dute modulu berri hori egin beharrik izango. Honako hauek: LP modulua ezohiko aldi egin duten ikasleek (2019-2020 ikasturteko lehen sei hilekoa).
4. Helburua da "LP+Proiektua" modulu berriko jardueri maiatzaren 4an ekitea, astelehena; eta on-line ekitea. Aurrez aurreko eskolak hasteko baimena iristen denean, ikasleak prestakuntza hori enpresan egiten hasi ahal izango dira, edo on-line jarraitu ahal izango dute.
6. Zer datorren ikusi ondoren, eta osasun-agintariek aurrez aurreko eskoletara itzultzeko baimena ematen digutenean, orduan izango dugu aukera doikuntzak egiteko 2019-2020 ikasturte honetarako hasiera batean jarritako egutegietan, baina, betiere, ikasturte amaierako gako-jarduerak errespetatuz, eta jarritako amaiera-datetan, ikasturte-itxiera ez dadin ekainaren 26a baino beranduago etorri. Honatx amaiera-data horiek:

6.1. Ekainaren 19, 22 eta 23an: Amaierako azterketak (finalak).

6.2. Ekainaren 24an: 2. ikasturteko 2. ebaluazio finala.



6.3. Ekainaren 25ean: Tutorearekin batzarra egin, eta ikasleari kalifikazioak eman.

6.4. Ekainaren 26an: Erreklamazio-eguna.

Ikasle hauek: gaur egun 2. ikasturtean matrikulaturik daude, eta prestakuntza enpresan egiten dute, programa DUALean.

1. Kontratua edo beka bertan behera geratu bada alderdi biek hala adostuta (ikasleak/enpresak), ikaslea, jakina denez, ikastetxeko jarduera normalera itzuliko da. Halakoetarako, aukera bat baino gehiago darabilgu esku artean, enpresan zenbat ordu egin dituen gorabeheran:

1.1. Enpresan egindako prestakuntza-denbora aurrez ezarritako 245 ordukoa edo gehiagokoa izan bada, ikasleak, salbuespen gisa, lantokiko prestakuntzako eta proiektuko moduluak gainditu egingo ditu.

1.2. Enpresako gutxieneko orduak egin ez dituen ikaslea "LP+Proiektua" modulu berrira batuko da, eta hor amaituko du egiteke geratzen zaion zatia.



**IKUS DEZAGUN NOLA EGIN ETA EBALUATU BEHAR DEN
“LP+PROIEKTUA” MODULU INTEGRATUA LANBIDE HEZIKETAN.**

Atal honetan alderdi hauek azalduko ditugu:

1. Nola egiaztatzen den benetan burutu direla LP eta Proiektu moduluak.
2. Zein diren salbuespenak.
3. Noiz, nola eta non egin behar diren.
4. Ebaluazioa egiteko jarraibideak.
5. LP eta Proiektu moduluen kalifikazioak nola adierazi aktetan.

1. Nola egiaztatzen den benetan burutu direla LP eta Proiektu moduluak.

1.1. Ikusi dugunez badirela zailtasun batzuk LP modulua enpresetan edo lantokietan egiteko, salbuespen modura eta 2019-2020 ikasturte honetarako, “LP+PROIEKTUA” izeneko modulu berri bat ezarri dugu Oinarrizko Lanbide Heziketarako (OLH), Erdi Mailako Heziketa Zikloetarako (EMHZ) eta Goi Mailako Heziketa Zikloetarako (GMHZ). OLHrako, 155 ordu iraungo du; eta EMHZ eta GMHZetarako, berriz, 245 ordu. Iraupen horiek kalkulatzeko, Oinarrizko Curriculum Diseinuak hartu ditugu oinarriztat. OLH, EMHZ eta GMHZ titulu bakoitzeko errege-dekretuetan datoz azalduta. Han jartzen duenez, OLH moduluak 130 eta 220 ordu iraun behar du gutxienez, eta proiektu-moduluak, berriz, 25.

1.2. Nork egin behar du modulu integratu berri hau?

- 1.2.1. Lantokiko Prestakuntza (LP) oraindik hasia ez duten eta beren sektoreko enpresetan egiteko arazoak dituzten ikasle guztiek.
- 1.2.2. LP hasia duten baina oraindik gutxieneko 245 orduak edo, OLHkoak badira, 155 orduak amaitu gabe dituzten ikasle guztiek.
- 1.2.3. Lanbide Heziketa Dualean ari diren eta baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasle guztiek:



1.2.3.1. Prestatzeko eta Ikasteko kontratua etenda geratu zaie baina oraindik ez dituzte burutu enpresan ikasten gutxienez egin beharreko 245 orduak.

1.2.3.2. Beka arautzen duen hitzarmena amaitu egin da baina oraindik ez dituzte burutu enpresan ikasten gutxienez egin beharreko 245 orduak, edo, OLHkoak badira, 155 orduak.

2. Zein diren salbuespenak.

Baldintza hauetakoren bat betetzen duten ikasleek ez dute modulu berri hori egin beharrik:

2.1. Eskatu dute, idatziz, uko egin nahi diotela 2019-2020 ikasturteko LP ohiko deialdiari (ikus 1. eranskina), eta konpromisoa hartu dute 2020ko irailetik abendura bitartean egingo dutela LP modulu osoa. Halakoetan, ezin hiru puntu hauek ahaztu; garrantzitsua da:

2.1.1. Ikaslea goi-mailako ziklo batekoa baldin bada, "LP+Proiektua" modulua egiteko jarrita dagoen denbora-bitartean egin ahal izango du Proiektuaren modulua.

2.1.2. Atzera 2. ikasturtean matrikulatu beharko da, eta LP modulua 2020-2021 ikasturtearen lehen lauhilekoan egin beharko du.

2.1.3. Modulu guztiak gainditu ondoren, 2020-2021 ikasturtean lortuko dute titulua; hori onartu beharra daukate.

2.2. LP modulua 2019-2020 ikasturteko lehen seihilekoan egin dute (ezohiko aldia LOE zikloetarako, eta ohiko aldia 1400 orduko LOGSE zikloetarako).

2.3. Lanbide Heziketako Osasuneko edo arlo Soziokomunitarioko azken maila ari dira ikasten eta lan-kontratua lortu dute martxoaren 27ko SND/299/2020 Aginduaren itzalpean (prestakuntzan dauden osasun-profesionalei buruzko neurriei dagokienez). Kontratuak zenbat irauten duen gorabeheran, erabat edo zati batean egongo dira salbuetsita.

2.4. Lanbide Heziketako azken ikasturtean ari dira ikasten eta lan-kontratua lortu dute Lanbide Heziketako Sailburuordetzako Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritzaren alde aurreko baimenarekin. Kontratuak



zenbat irauten duen gorabeheran, erabat edo zati batean egongo dira salbuetsita.

3. Noiz, nola eta non egin behar den "LP+Proiektua" modulu berria.

Gainerako modulu profesionaletarako ezarrita dagoen prestakuntza osatu beharko du "LP+Proiektua" modulu integratu berriak. Maiatzaren 4tik aurrera egingo da, on-line modalitatean; eta astean egun batean ikastetxean, osasun-agintaritzak aurrez aurreko irakaskuntzara itzultzeko baimena ematen duenean. Modulu berri hori jomuga batzuk lortzeko planteatu beharko da, titulu bakoitzeko konpetentzien arabera. 3 fasetan egin ahal izango da:

1. Testuingurua aztertzea.
2. Proiektua diseinatzea.
3. Nola egin antolatzea.

Ikasleari planteatzen zaion "jomuga" bakoitza, ahal den neurrian, heziketa-ziklo bakoitzari lotutako kualifikazio-maila bakoitzeko konpetentzietara egokitu beharko da.

Hona hemen jarraibide batzuk, jomuga horiek garatzeko lagungarri izango zaizkizuelakoan:

- **1 maila (OLH):** Proposatzen den edo diren jomugek zer eduki behar duten; esate baterako:
 - Jarduerak beti antzera batean egin edo deskribatuko dira zehatz-mehatz (errutina), aurreikusteko moduan, eta ikasleak tutorearen oso laguntza hurbila izango du haiek exekutatzeko. Horretarako, besteak beste, teknikak, elementuak, materialak, tresnak eta ekipoak erabiliko dira, testuinguruan kokatuta eta erabat definiturik, jomuga lortzeko.



- Erabakiak hartzeko orduan, aukera gutxi batzuk eskainiko zaizkio ikasleari.
- 2. maila (EMHZ): Proposatzen den edo diren jomugek zer eduki behar duten; esate baterako:
 - Jarduerak egiteko edo jarduerok zehatz-mehatz deskribatzeko, teknika espezializatuak erabiliko dira, nolabait konplexuak jada. Tutorearen ikuskapena izango dute exekuzio-irizpideetarako eta proposaturiko jomugen emaitzetarako.
 - Ikasleak autonomia izango du teknika eta bitarteko batzuk aukeratzeko, eta sormen-maila bat ere beharko da, jomugara iristeko metodoak eta prozedurak aplikatzeko orduan.
- 3. maila (GMHZ): Proposatzen den edo diren jomugek zer eduki behar duten; esate baterako:
 - Jarduerak testuinguru bat baino gehiagotan egingo dira edo deskribatuko dira xehe-xehe. Testuinguru horietako batzuk konplexuak izango dira, eta teknika bat baino gehiago erabili beharra eskatuko dute.
 - Proposaturiko jomugan edo jomugetan, era askotara lortu ahal izango da emaitza, eta ikasleak autonomia izango du nondik jo erabakitzeko. Gauzak interpretatzeko eta ebaluatzeko gaitasuna ere izango du, baliabideak optimizatzearen.

Ea jarraibide hauek baliagarriak diren, gainera, faseetako bakoitza garatzeko. Ez ahaztu fase horiek dena delako tituluaren kualifikazio-mailan kokatu beharko direla.

1. 1. fasea. Testuingurua aztertzea: Informazioa biltzea, beharrak identifikatzea eta horrekin zerikusia duen guztia; gainera, erdi- eta goi-mailako zikloetan, bideragarritasun-azterketa bat ere egin beharko da. Informazio-bilketa horretan, jomugarekin zerikusia duen guztia hartu



daiteke kontuan, eta, gainera, besteak beste alderdi hauek erakuts daitezke:

- 1.1. Zikloa zein ekoizpen-sektoretara begira dagoen ikusi, eta sektore horretako ezaugarriak islatu, hura baita erreferentzia eta han ezarriko bide baita jomuga. EMHZ edo GMHZ ari badira ikasten, txosten bat idazteko eska dakieke, gainerako sektoreen aldean beraien sektoreak/azpisektoreak zer ezaugarri berezi dituen azaltzeko.
 - 1.2. Dagokien sektoreko enpresen ohiko egitura.
 - 1.3. Lanposturik/lanbiderik esanguratsuenak.
 - 1.4. Sektoreko langileen prestakuntzak zer bilakaera izan duen.
 - 1.5. Teknologia berriek zer-nolako eragina duten sektoreko enpresetan (digitalizazioak, konektagarritasunak eta abar).
2. 2. fasea. Proiektua diseinatzea. Helburua: ildo orokor batzuk egitea, haietan aurrera eginez emateko erantzuna mahai gainean diren beharrei. "Jomuga" zertarako den ere azaldu beharko da: edo sektorean atzemandako premia bati erantzuteko, edo sektoreak berezkoa duen jarduera bati erantzuteko. Ezartzekotan nola ezarri beharko litzatekeen ere azaldu beharko du; alderdi garrantzitsuenak behintzat.
3. 3. fasea. Gauzatzeko prozesua antolatzea: "Jomuga" ezartzeko garatu beharreko jardueren/zereginen programazioa egin beharko da, eta horretarako beharrezkoak diren baliabideen kudeaketa planteatu. Besteak beste, honako alderdi hauek jorratu beharko dira:
- 3.1. Planteatutako jomuga edo jomugak lortzeko jardueren eta zereginen sekuentziazioa eta plangintza egitea.
 - 3.2. Helburua deskribatzea eta hura gauzatzeko jarduerak/zereginak definitzea.
 - 3.3. Jarduerak eta atazak denboran antolatzea. [Erdi- eta goi-mailako zikloetarako soilik].
 - 3.4. Arriskuak prebenitzeko neurriak identifikatzea, eta neurriok aplikatzeko baldintzak identifikatzea. [Erdi- eta goi-mailako zikloetarako soilik].



- 3.5. Adieraztea zein jarduera eta ataza egin daitezkeen paraleloan eta zein sekuentziara. [Erdi- eta goi-mailako zikloetarako soilik].
- 3.6. Identifikatzea zer alderdi kontrolatu behar diren proiektuaren kalitatea bermatzeko, bai eta jarduera eta atazen edo osotasunaren kontrola eta jarraipena egiteko prozedurak ere. [Erdi- eta goi-mailako zikloetarako soilik].
- 3.7. Zer langile eta zer material erabiliko diren ataza bakoitza egiteko.
- 3.8. Beste lantalde batzuekin koordinatzea, beharrezkoa baldin bada.
- 3.9. Bideragarritasun-txosten txiki bat egitea. [Erdi- eta goi-mailako zikloetarako soilik].

Ikasleak, bada, dokumentazioa osatu beharko du “jomuga” gai hartuta, irakasleei/tutoreei aurkeztu eta haiek ebalua dezaten; eta, dokumentazio horretan, aipatutako faseak jasotzeaz gain, beharrezkotzat jotzen den informazio grafiko guztia ere jaso ahal izango da, hobeto ulertzeko (planoak, argazkiak, grafikoak, bideoak, etab.). Horretarako, irakaslearen-tutorearen gomendioei jarraitu beharko die ikasleak.

4. Ebaluazioa egiteko jarraibideak.

“LP+Proiektua” modulu integratu berria on-line eta/edo ikastetxean egiten denez, ikastetxeko tutoreak bakarrik ebaluatuko du, ez enpresako tutoreak. Garrantzitsua da ikastetxeak aldeztatik ezartzea, sailekin lankidetzan, proposatutako jomugak ebaluatzeko orduan zer irizpide erabiliko diren eta nola haztatuko edo neurtuko diren, eta irizpide horiek homogeenak izatea ikastetxe osorako.

5. LP eta Proiektu moduluen kalifikazioak nola adierazi aktetan.

Ebaluazio-aktetan honako kalifikazio hau jaso beharko da:

- 5.1. OLHko tituluak: Ebaluazio-aktetan, Lantokiko Prestakuntzan “gai” izan den edo “ez-gai” izan den jasoko da; horixe izango da kalifikazioa. Ez da kontuan hartuko espediente akademikoaren batez besteko nota kalkulatzeko.



HEZKUNTZA SAILA
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Plangintza eta Antolaketako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Lanbide Heziketako Sailburuordetza
Plangintza eta Antolaketa Zuzendaritza

5.2. EMHZ. Ebaluazio-aktetan, Lantokiko Prestakuntzan “gai” izan den edo “ez-gai” izan den jasoko da; horixe izango da kalifikazioa. Ez da kontuan hartuko espediente akademikoaren batez besteko nota kalkulatzeko.

5.3. GMHZ Hau jaso beharko da ebaluazio-aktetan:

5.3.1. Proiektuaren modulua, kalifikazioa zenbakiz jarria, batetik hamarrera, dezimalik gabe.

5.3.2. Lantokiko Prestakuntzaren modulua, “gai” izan den edo “ez-gai” izan den kalifikatuko da. Ez da kontuan hartuko espediente akademikoaren batez besteko nota kalkulatzeko.

Gasteiz, 2020ko apirilaren 20a.

Nicolás Sagarzazu Alzua

PLANGINTZA ETA ANTOLAKETAKO ZUZENDARIA



1. ERANSKINA

Izen-abizenak:

NAN:

.....

Prestakuntza-ziklo honetako 2. ikasturtean nago matrikulaturik:.....

Covid-19k eragin duen krisia dela-eta, ezin dut Lantokiko Prestakuntza Modulua (LP) enpresa edo lantoki batean egin, eta hau

ESKATZEN DUT

Lantokiko Prestakuntza modulua (LP) 2019-2020 ikasturte honetako 3. hiruhilekoan egin behar nuen, baina, honen bidez, ezohiko deialdiari uko egin nahi diot, eta baimena eskatu nahi dut modulu hori 2020-2021 ikasturteko lehen lauhilekoan egiteko.

.....(e)n, 2020ko

aren (e)(a)n.

Sinadura